

SALOME CAMPOS ZEHARKALDIAREN ESTREINALDIAK JENDE ASKO BILDU ZUEN BERMEON



Salome Campos I Zeharkaldia proba gogorra izango zela ohartarazi ziguten zeharkaldi hau antolatzeaz antolatu direnek. Benetan asmatu zutela. Distantzia, gaur egun ur irekietan antolatzen diren modu honetako lehiaketetakoak baino haundiagoa eta gogorragoa da. 2.000 eta 3.000 metrotan ibiltzen bait dira distantziak Euskadiko ligan. Bermeon 5.000 metro zegoen aurretik. Erdikoa Izaro uhartera iristeko eta beste erdikoa bueltatzeko portura.

Ezaugarriak zailak ziren ere bai. Itsaso zabalean ia 4.000 metro, behin uhinurrategitik kanpo, gainera olatuak beti trabeska izan dute partehartzaileek, ez alde ez kontra. Eta arnasa hartzeko, igerilariak asmatu behar izan dute bai alde batetik bai bestetik. Horretaz gain, eguraldia ez zuen batere lagundu: Haizea, hondoko itsasoa, korrante gogorrak uhartetik hurbil, euria... zailtasun asko.

Arratsaldeko ordubietan eman zitzaion hasiera Salome Campos I Zeharkaldiari. Ordu horretan abiatuko bait ziren emakumezkoak -hogeit bat inguru- eta ordubiak eta laurdenetan gizonenak irten ziren. Guztiek erakutsi dute oso maila handia egun zailan baina azkenean iragarpenak bete ziren.

Emakumeen artean, Lara Vicandi portuko aldapan agertu zen aurrenekoa izan zen. Bere denbora 1h07'56". *"Oso, oso gogorra izan da, batez ere azken zati hau espikoi-tik parean. Oso olatu zakarrak ziren, ez zen ikusten ezer ez... Gainera ur temperatura nahiko hotza zegoela iruditu zait baina hori agian neoprenorik gabe igeri egin dudalako",* esaten zuen Fortunako igerilariak.



Gizonen artean, Adnan Mustafic bosniarra ordubetetik jaizten zen bakarra izan zen. 56'10"an bete zuen zeharkaldia: *“Gogorra benetan, olatu askorekin eta gainera luze egin zait. Uhartetik hurbil izan da zailena joaneko bidean, korrante gogorrak zeuden eta”*.

Lehenengo Salome Campos Zeharkaldiak sailkapenerako balioko ez ba du ere, bi kategoriatako lehengoek txapelarekin batera bere pisua Camposko ipar hegaluzetan eraman zuten sari giza. Guztira 60 hegaluze kilo Vicandirentzat eta 95 Mustaficentzat. David de Jorge sukaldari famatuak opariak eman zizkien irabazle.

Izan ere zeharkaldiaren helburu nagusia erronka burutzea izan da. Duela mende bat Salome Camposek berak egin zuen bezala. Erakustaldiak Bermeoko herriko emakume bat omendu nahi izan du. Duela mende bat, Campos enpresaren sortzailetako bat izan zenak egin bait zuen Bermeo eta Iزارo arteko zeharkaldi hori apostu bat irabazi nahian beste emakume baten kontra. Emakume arteko erronka bat izan zen baina gizona egiten zuten moduko gauzak egiteko zai zela frogatu nahi zuen Salomek gizon mundu batean. Bere omenezko zeharkaldia gogorragoa izan da partehartzaileek bueltan ere etorri behar izan zutelako.

